

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Ahaldun Nagusia**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 39/2021 FORU DEKRETUA, apirilaren 13koa, uztailaren 1eko 101/2019 Foru Dekretua bigarren aldiz aldatzen duena. Foru-Dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren sailak zein haien jardun-eremu eta eginkizunak ezarri ziren.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretua, uztailaren 1eko 101/2019 Foru Dekretua bigarren aldiz aldatzen duena. Foru Dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren sailak zein haien jardun-eremu eta eginkizunak ezarri ziren.

Ahaldun nagusiaren uztailaren 1eko 101/2019 Foru Dekretuak (Bizkaiko Foru Aldundiak uztailaren 2ko ezohiko kontseiluan baliozkotu zuen dekretu hori) Foru Aldundiaren sailak zein haien jardun-eremu eta eginkizunak ezartzen dira.

Bizkaiko Foru Aldundiaren irailaren 3ko 128/2019 Foru Dekretuak, berriz, uztailaren 1eko 101/2019 Foru Dekretua aldatzen du, zeinaren bidez Bizkaiko Foru Aldundiaren Sailak zein haien jardun-eremu eta eginkizunak ezartzen baitira.

Foru-dekretu honen xedea da Foru Aldundiak egun duen egiturari funtsean eustea, baina beherago ezarritako aldaketekin; izan ere, gaur egungo egoera sozial eta ekonomikoa kontuan harturik aldaketok egokienak direla irizten da.

Asmo horiek gauzatzeko eta funtzionalitate egokia lortzeko, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailari eta Estrategia Digital eta Korporatiboaren Kabineteari atxikitako zuzendaritza nagusi batzuk berrantolatu behar dira, arrazionaltasun-irizpideak aplikatuta.

1. Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren kasuan, bitan banatzen da Udal Harremanen eta Larrialdien Zuzendaritza Nagusia: Toki Administrazioaren Zuzendaritza Nagusia eta Larrialdien Kudeaketarako eta Babes Zibilerako Zuzendaritza Nagusia; Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza Nagusia, berriz, Estrategia Digital eta Korporatiboaren Kabinetearen menpe geratuko da, kabinete horrek orain arte izan dituen eta aurrerantzean izango dituen eginkizunekin koherentzia gordetzearren.

2. Estrategia Digital eta Korporatiboaren Kabineteari dagokionez, kendu egiten da Planen Koordinazio, Ebaluazio eta Jarraipenerako Zuzendaritza Nagusia, zeinaren eginkizunak Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusiaren esku geratuko baitira, eta, 1. apartatuan adierazitakoarekin bat, bateratu egiten dira Administrazio Publikoaren eta, oro har, gizartearen digitalizazioarekin lotutako politikak, bai eta herritarrei kanal guztien bidez (telefonoa, web-a eta aurrez aurrekoa) arreta ematearekin lotutakoa ere, Digitalizazioaren eta Herritarrenganako Laguntzaren Zuzendaritza Nagusiaren bidez.

Ahaldun nagusiari dagokio foru diputatuak izendatzea, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 37. artikuluan xedatutakoa dela bidez; eta Foru Aldundiaren egitura orokorra eta haren jardun-eremuak ezartzeko ahalmena du.

Nolanahi ere, Foru Aldundiak, gero, bestela erabaki dezake, sailtako egitura organikoak onesterakoan, foru-arau bereko 17.1.14 artikuluan ematen zaizkion eskumenak erabiliz.

Halaber, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 15.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio antolaketako barne-erregelamenduak onartzea.



Hori dela bide, ahaldun nagusiak proposatuta, eta Foru Aldundiak eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra

Onestea Bizkaiko Foru Aldundiaren sailak zein haien jardun-eremu eta eginkizunak ezartzen dituen uztailaren 1eko 101/2019 Foru Dekretuaren bigarren aldaketa, foru-dekretu honen eranskinean ezarritakoaren arabera. Eranskina foru-dekretuaren xedapen-zatiari erantsi zaio, ondorio guztietarako.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren egitura organikoari buruzko foru-dekretuak eta, Ahaldun Nagusiaren Kabinetea eta Estrategia Digital eta Korporatiboaren Kabinetea arautzen dituen erregelamendua onetsi edo aldatu artean, mantendu egingo dira gaur egungo zuzendaritza, zuzendariordetza, zerbitzu eta atalen eginkizunak, bien bitartean egiten diren izendapenak gorabehera.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabeturik geratuko dira foru-dekretu honen aurka dauden xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2021eko apirilaren 13an.

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ

**ERANSKINA**

Ahaldun nagusiaren uztailaren 1eko 101/2019 Foru Dekretuaren aldaketa. Dekretu horren bitartez, Bizkaiko Foru Aldundiaren Sailak zein haien jardun-eremu eta eginkizunak ezartzen dira.

Lehena. – Lehenengo artikuluko 1. zenbakia aldatzea

Honela geratzen da idatzita lehenengo artikuluko 1. zenbakia:

«1. Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saila.

- a) Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusia.
- b) Toki Administrazioaren Zuzendaritza Nagusia
- c) Larrialdien Kudeaketarako eta Babes Zibilerako Zuzendaritza Nagusia.
- d) Zerbitzu Korporatiboen Zuzendaritza Nagusia.

Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailari atxikiko zaizkio Lantik SA Bitarteko Propioa eta Zugastel SA Bitarteko Propioa merkataritzako foru-sozietateak eta Biscaytik Fundazioa».

Bigarrena. – Hirugarren artikulua aldatzea

Honela geratzen da idatzita hirugarren artikulua:

«Estrategia Digital eta Korporatiboaren Kabinetea sortzen da, zeina zuzenean Ahaldun Nagusiaren menpe egongo baita. Haren eginkizunak erregelamenduz garatuko dira; Estrategia Digital eta Korporatiboaren Kabinete burua titularra izango da, eta jardun-eremu nagusi hauek koordinatuko ditu:

- a) Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusia.
- b) Digitalizazioaren eta Herritarrenganako Laguntzaren Zuzendaritza Nagusia».